

Orbeldi errioa



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Mizpirak ekarri zuen itulan udazkena, baina azaroa haizeak udazkentzen du. Orain, egun-argia motzenera ekarri zingun sasoiari errematea eman eta negu-ari ere haizeak irekiko dio kereta. Hai-zeen mende bizi behar.

Udazkentzearena egun batekoa izan ohi da, niretzat. Jeneralean, haizete bategen baino gehiagok biluzten eta azal-bititzen dituzte landareak, pixkanaka, hostoak prestatu ahala. Aurten, baina, nabarmena izan da. Garoak ebakitzeko lizentzia ekarri zuen irailetik hasi eta gaztainazituan segi, urtaro gozoa izan da; haizeak azaroa bururatu duen arte. Haize horri behar bezalako harrera egiteko, zuhaitzek, arboleek eta zuhaixkek ikaragarritzko kolore deigarritzko soinekoak jantziak zituzten. Haizea berandutzen, eta landareek, luze etsita, soinekoak aspaldiko kolore sorta ederekin loratuta. Ufako bolada arte, haizea indarrean harrotu eta biluztea ikusgarria izan da. Haizeak jantzi zuen basoaren soinekoa. Haize guztia baso zen. Haize bat hosto. Gau osoan dantzan ibili zen hosto jendea, denak elkarren arrimuan, haize-sokan. Eta halako batean, haizea nekatu zenean, bazterretara bildu eta ezkutatu egin zen. Soinekoa bazter horietan geratu da. Hostaia orbeldu da. Orbeldi izena duen zokoa bada gure auzoko herrian, haize hotzak habia orbeletan egiten duen bazter ospela.

Bazterretatik urak bereganatu eta mugitu du orbela. Errekak, ibaiak, errioa eta itsasoak jantzi dute orduan hosto soinekoa. Gure etxepeko errioan mareak gora jo zuenean, ur gaina erabat hosto zen. Errio bat orbeldu.

Badira, haizeak haize, oraindik ere koloretako soinekoari soinean eusten diotenak. Etxetik urrutira gabe, egunero



ikusten dudana sagarrondo bat (*Malus x domestica*) aspaldiko urteetan ezagutzen dut, eta, urtetik urtera, bere egoskorkeria txalotzera geratzen naiz bere

azpian. Gehiago maite dut bere hostaia-
ren kolore dantzagatik, bere fruituen-
gatik baino. Gaur, negu, oraindik gorri-
dago. Eguna nola luzatzen den ikusten. ■